

Gaiak:

Proposamen
orokorra

Laugarren mahai sektoriala (martxoaren 17an)

**HEZKUNTZA SAILAK AZKEN BILERAN
ZEHAZTASUN GUTXI, MURRIZKETA ASKO:**

MURRIZKETAN OINARRITUTAKO AKORDIOA
IZANGO DA. BEHAR BERRIAK IZAN ARREN, EZ
DA BALIABIDE GEHIAGORIK IZANGO

- Plantillak
eta
baliabideak

Haur eta Lehen Hezkuntza. Orain artekoa eskaxa bazen ere, hemendik aurrera gutxiago gehienontzat: 2 urteko geletako laguntzak desagertzen dira eta orain arteko taulak eta irizpideak bertan behera gelditzen dira; zuzendaritzak kudeatuko ditu ezarriko diren ordu kredituak.

Bigarren Hezkuntza: gutxieneko ratioa zena (2 irakasle gelako), orain erreferentziatzatko izango da; zailtasun gehiago bikoizketa orduak izateko: kopurua 15 ikasletik 20ra pasatzen da eta dibertsifikazio taldea sortzeko 6 ikasletik 10era. Beraz, talde eta ordu gutxiago.

Lanbide Heziketa: bikoizketa orduetarako kopurua 15 ikasletik 20ra doa; zikloa emateko matrikula gutxienez 12 ikasle (lehen 10 ziren).

- Hainbat proiekturen orduak (IKT, Bizikidetzak, lan-arriskuak) eta beste baliabideak, gestiorako ordu-kreditoan biltzen dituzte zuzendaritzaren esku.

Laburtuz: lan gehiago eta baliabide gutxiago izango ditugu!

- Hezkuntza
Behar
Bereziak

Ez dute ezer zehazten, baina bai esan baliabideak "arrazionalizatuko" direla. Diagnostikoen ardatzak ere "berraztertu" nahi dituzte. (*Hau beldurra!*)



(jarraitzen du)

-Ordezka-
penak

- Lehenengo egunetik: PTEko gela egonkorak eta liberazio sindikalak.
- Hirugarren egunean: Haur Hezkuntza eta Ingelesa, Frantsesa, Alemaniera (*Euskara ez!*)
- Astebetera (!!!): Lehen eta Bigarren Hezk., Lanbide Hez. eta norbere gauzetarako baimena.

Orain arte baino ordezkapen gehiago bete beharko ditugu ikastetxeetan

- Soldatak

- Seiurtekoen kapitalizazio sistemarekin amaitu nahi dute, karrera dozentea ezartzeko (*funzionarioentzat beraz, ez ordezkoentzat!*). Denori dagokiguna auskalo nola banatuko duten.
- Tutoretza pizgarria mantentzen da.
- Zuzendarien osagarria handitu eta zati bat betiko konsolidatu ahal izango da.

*Haserrera
motiborik
bada!!!*

Proposamena iraingarria da:

- Krisiaren harira ezarri nahi dituzten murrizketen partaide egin nahi gaituzte eta ez gaude prest!
- Nahi dituzten aldaketak eta murrizketak inolako kontrolik gabe egin ahal izateko eskuak libre nahi dituzte!
- Murrizketa hauen kudeaketaren pisua zuzendarien esku utzi nahi dute (*a ze marroia!*)
- Ordezkoentzat lan gutxiago izango da, euren lan baldintzak ez dira inola hobetzen eta esleipen prozesuetan bermeak gal daitezke (prozedura informatiko berria). Baremazioan EPEn nota sartu nahi dute.

HAU AL DA SALDU NAHI DUTEN KALITATEA?



**LAN BALDINTZAK HOBETU,
ESKOLA PUBLIKOA INDARTU**

Martxoak 25